



BURUA GARBITZEA KIRURGIA EGIN AURRETIK

Kirurgia baten aurretik burua garbitzea prozedura garrantzitsua da **infekzio-arriskua murrizteko**.

Xaboi antiseptikoarekin egingo da, larruazaleko bakterio kopurua ezabatzen edo murrizten laguntzeko eta kirurgiaren ondoren infekzioak izateko posibilitatea murrizteko.

Neurokirurgiako kontsultan, informazio-orri honekin batera, erizainek pobidona iododuneko soluzio bate mango dizute %4an (*Betadine Champú®*).

Burua kirurgia egin **aurreko gauean** garbitu beharko da, eta **egun berean** goizean **berriro** garbitu.

Ziurtatu ondo garbitzen dituzula buruko ile-larrua eta ilea, erizainek emandako **jarraibide** espezifikoen arabera.

Garbitzeko moduari buruzko zalantzarik baduzu, erabili beharreko produktua, edo alergiaen bat baduzu, kontsultatu iezaguzu.

PROZEDURA

Bai aurreko gauean, bai kirurgia-egunean, jarraitu honako urrats hauek:

- ✓ **BETADINE CHAMPU®**.a buruaren gainean zuzenean aplikatzea.
- ✓ Bi aplikazio egin behar dira:
 - Lehenengoan, ur beroarekin bustitako ileari eman, buruko ile-larru osora iristen saiatuz.
 - Ur beroarekin urberitzea.
 - Eman berriro *betadine champú®* izeneko xanpua ilean eta buruko ile-barruan; kasu honetan, igurtzi aparra sortu arte eta utzi aplikazioa 5 minutuz.
 - Ur bero ugarirekin garbitu.
- ✓ Lehortu toalla garbi batekin.